



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko uztailaren 30a

82. ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileentzat “txartel adimentsuak” ezartze aldera Nafarroako Foru Komunitateak eta Banco de Santander S.A.-k eginiko lankidetzaz hitzarmenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Sexu-esplotazioarako emakume-salerosketaren aurkako Nafarroako Foroaren proiektioari eta datozen hilabeteetako lan-dinamikari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Nafarroako D ereduak ikastetxeetan, Lehen Hezkuntzako Ingurunearen Ezaguera arloan eta Bigarren Hezkuntzako Gizarte Zientzien arloan erabiltzen diren testuliburuaren zerrendari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, “Itzaleko bidesaria” finantzaketa-ereduak direla-eta Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritaterako eta kudeaketa nahiz efizientzia hobekuntzako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa osatzen duten sozietateen administrazio kontseiluei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, “Reyno Arena” pabiloiaren kudeaketa eta finantzaketa direla-eta Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritaterako eta kudeaketaren hobekuntzarako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Moderna Planari lotutako jarduketa guztien kudeaketa eta finantzaketa direla-eta Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritaterako eta kudeaketa nahiz efizientzia hobetzeko neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Nafarroarako Inbertsio Publikoen Plana taxutu eta bukatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Foruzaingoan txapelaren erabilera arrunta ordeztzeko hartutako erabakiaren arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, burtsa-balioetan sartutako baliabide publikoak direla-eta Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritate eta hobekuntza neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

- Galdera, Espainiako Itzuliko etapak direla-eta Unipublic-i ordaintzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Merkataritza Ganberarekiko harremanean Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritate eta hobekuntza neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, jakitekoa zergatik ez den ordezkatu erretiroa hartu duen Leitzako Nekazaritza Ganberako langile bat. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Castejongo ziklo konbinatuko zentral termikoetako tximinietan kutsagarriak era jarraituan neurtzeko sistemak ezartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Los Arcosko zirkuituaren kudeaketa eta finantzaketa direla-eta Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritaterako eta kudeaketaren hobekuntzarako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, Tuterako Laneko Arbitraje eta Bateragarritasun Bulegoa itxi izanaren arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, jakitekoa zer eragilerekin koordinatu den Ekintzaitzeta Plan berria. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Nafarroan egiten den giza organoen kudeaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, 2008-2012 urteetan Osasunbideak izandako langile kopuruari eta haien egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileentzat “txartel adimentsuak” ezartze aldera Nafarroako Foru Komunitateak eta Banco de Santander S.A.-k eginiko lankidetzak-hitzarmenari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maite Esporrín Las Heras andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileentzat “txartel adimentsuak” ezartze aldera Nafarroako Foru Komunitateak eta Banco de Santander S.A.-k eginiko lankidetzak-hitzarmenari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2012ko urriaren 29ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Maite Esporrín Las Heras andreak “Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileentzat “txartel adimentsuak” ezartze aldera Nafarroako Foru Komunitateak eta Banco de Santander S.A.-k eginiko lankidetzak-hitzarmenari buruz” idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES-00147), hau erantzun dio Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak:

Proiektu honen garapen maila.- 2012ko ekainaren 29an Nafarroako Gobernuaren eta Banco de Santanderren artean lankidetzako esparru hitzarmena sinatu zen. Hitzarmen horren xedea, lehenengo klausulak dioenez, hau da: “Banco de Santanderren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean lankidetzarako esparrua ezartzea, Osasun Sailaren bitartez, bere teknologia, produktuak eta esperientzia eskainiz, osasun-eremuko berariazko proiektu eta zerbitzuak eta osasun-laguntzaren kalitatea indartzeko, kudeaketaren eraginkortasuna hobetzeko eta, orokorrean, osasun-zerbitzu

publikoen eskaintza eta maila jasotzeko ekimenak garatzea helburu dela”.

Esparru hitzarmen hori garatzeko, 2012ko ekainaren 29an “Nafarroako Foru Komunitatearen eta Banco de Santander, S.A.-ren arteko lankidetzako Berariazko Hitzarmena, Profesionalarentzako Txartel Adimentsua eman eta ezartzeko” izeneko hitzarmena sinatu zen. Hitzarmen horren lehenengo klausulak dioenez, helburua hau da: “Nafarroako Ospitalegunean eta, kasuan kasu, Laugarren Klausulan izendatzen den Jarraipen Batzordeak une bakoitzean izendatzen dituen Nafarroako ospitale publikoetan Profesionalaren Txartel Adimentsua eman eta ezartzeko baldintzak finkatzea, l. azalpenean aipatu den lankidetzako esparru hitzarmenean ezarrita dagoenaren babespean”.

Bosgarren klausulan (ez laugarrenean, aipatu den lehenengo klausulan oker baten ondorioz azaltzen den bezala) Hitzarmenaren Jarraipen eta Garapenerako Batzordea eratu zen. Batzorde hori, alde bakoitzeko hiru mintzakidek osatu zuten. Batzorde horrek oraindik ez du bilera formalik egin hitzarmena sinatu zuten aldeei proposatu beharreko erabaki bat hartzeko.

Zer profesionalentzat izanen litzateke txartel hori?.- Profesionalarentzako txartel adimentsua honako hauen artean da, bigarren klausulako a) idatz-zatiak dioten moduan: 1. “Nafarroako Ospitaleguneko eta, kasuan kasu, Jarraipen Batzordeak izendatzen dituen Nafarroako ospitale publikoetako (horiek guztiak aurrerantzean Ospitalea edo Ospitaleak izanen dira) osasun arloko profesionalentzat”.

Noizko ezarriko da?.-

Txartel adimentsua ezartzeko, Jarraipen Batzordea eratu behar da. Oraindik ez da eratu batzorde hori.

Nork finantzatuko du zerbitzu hori? Zer zenbateko du?.- Bigarren Klausulako a) idatz-zatiko 1 zenbakiaren -Banco de Santanderren betebeharrak- hasierak dioenez, Txartela jaulki eta mantentzea Banco de Santanderren betebeharra da.

Bigarren klausulako b) idatz-zatiko 8 zenbakiak -Nafarroako Osasun Zerbitzuaren betebeharrak- dioenez, Osasun Zerbitzuak "Iaguntza eman beharko du, ospitale bakoitzean Profesionalarentzako Txartel Adimentsuak dituen funtzioak behar bezala garatu ahal izateko sistema informatikoak eta irakurketa-gailuak eskura egon daitezen". Profesionalarentzako Txartel Adimentsua zein funtziotarako erabili ahal den, funtzio horien barruan aztertu beharko dira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuarentzat komenigarrienak eta lankidetzarik eraginkorrenak direnak, Jarraipen Batzordean planteatu ahal izateko, eta txartela Nafarroako ospitale publikoen eremuan ezarri ahal izateko.

Zet alderdi kontrolatu ahalko da txartel horren bidez? Izan ere, hitzarmenean ez da behar bezain garbi gelditu zertarako baliatuko den: ikuztegia, uniformeak, protesiak, kirurgiako materiala, liburutegia, txanpon-txartela, munta txikiko ordainketak, instalazioetarako sarbidea... .- Bigarren klausulako a) idatz-zatiko 2 zenbakian Profesionalarentzako Txartel Adimentsuak izan ditzakeen erabilerak azaltzen dira, laburbilduta: *Lantokian nortasuna

egiaztatzea;* Zerbitzu jakin batzuk eskuratzea egiaztagiri digitalarekin;* barruti fisikoetarako sarrerak kontrolatzea;* produktu profesional jakin batzuen kontrola eta jarraipena egitea;* txanpon-txartela; eta *beste funtzio batzuk. Hain zuzen ere, mugatu behar dena da balizko funtzio horietako zein diren interesgarrienak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuarentzat eta zeini ekin ahal zaion eragin-kortasun erlazio handiagorekin.

Txartel horretan jasotako datuen jabetza intelektuala, Banco de Santanderrena al da?.-

Esparru hitzarmenean eta berariazko hitzarmenean ez dago aurreikusita Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren datuak Banco de Santander, S.A. ren jabetzapean utziko direnik.

Banco de Santanderrekiko hitzarmen ekonomikoa bukatzen bada, txartel adimentsuetarako akordioa ere bukatuko al da?

Berariazko hitzarmena txartel profesional adimentsuei buruzkoa da. Horregatik, berariazko hitzarmen hori bukatzen bada, txartel profesional adimentsuetarako akordioa ere bukatuko da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko urriaren 31n

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, Sexu-esplotaziorako emakume-salerosketaren aurkako Nafarroako Foroaren proiektioari eta datozen hilabeteetako lan-dinamikari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bikendi Barea Aiestaran jaunak egindako galderaren erantzuna, Sexu-esplotaziorako emakume-salerosketaren aurkako Nafarroako Foroaren proiektioari eta datozen hilabeteetako lan-dinamikari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2012ko urriaren 29ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaran jaunak sexu-esplotaziorako emakume-salerosketari buruzko Nafarroako Foroaren proiektioari eta datozen hilabeteetako lan-dinamikari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES 152), hau erantzun dio Nafarroako Gobernuako Gizarte Politiketako kontseilariak:

Nafarroan esperientzia garrantzitsua dago emakumeen aurkako indarkeriaren arloko esku-hartzean. Hala ere, sexu-esplotazioari, prostituzioari eta emakume-salerosketari dagokionez, emakumeenganako indarkeriaren aurka laneko ekimen koordinatu eta sistematiko gutxi daude.

Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuak aurrera egin du indarkeriaren modu horri ekitearen ildoan, eta Foru Komunitatean sexu-esplotaziorako emakume-salerosketari buruzko foroa berriaz sortu du. Foro hori 2011. urteko urtarrilean eratu zen, eta administrazio publikoek –tokikoak, autonomia erkidegoetakoak eta estatukoak– eta gobernuz kanpoko erakundeek osatzen dute, guztiek esperientzia diferentek dituztela sexu-esplotazioko egoeran duden emakumeekin egindako lanari dagokionez.

Foro hori lehenengo eta ezinbesteko urratsa izan da arlo honetan ekimen koordinatuak abian jartzeko. Horregatik, lehenbiziko zeregina sexu-esplotaziorako emakume-salerosketaren aurkako aholku- eta lankidetzaren esparrua sortzea eta Nafarroan sexu-esplotazioaren eta emakumezkoen salerosketaren egoera aztertzea izan da; halaber,

esku hartzeko proposamenak egin dira. 2011n, Nafarroan sexu esplotazioari eta emakume-salerosketari dagokionez dagoen egoerari buruzko txostena eta esku-hartze proposamenak idatzi ziren. Emakume-salerosketa fenomeno konplexua eta alderdi askotakoa dela aintzat hartu arren, txosten horretan sexu-esplotazioarekin zerikusia duena soilik aztertu dugu, salerosketaren beste adierazpen batzuk kontuan hartu gabe, adibidez eskekotasunarekin edo beste fenomeno batzuekin zerikusia duena, horiek ez baitira Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuaren eskumenetan sartzen.

Egoerari buruzko txostena da emakumeen sexu-esplotazioaren aurkako erantzun oso eta koordinatua emango duen ekintza politikoa diseinatzeko oinarria. Politika publikoen xedea gizarte-arazoak desagerraraztea eta, hori ezinezkoa bada, murriztea izan behar da. Orain arte, sexu-esplotazioaren arloko politika publikoen helburua, funtsean, kalteak murriztea izan da. Muga hori zela-eta, txostenaren esparruan ekintza-plan bat diseinatu behar izan zen norainokoa handitzeko eta esplotazioa gertatzeko eta irauteko eragina duten elementuen inguruan ekiteko; hala, biktimak identifikatu, babestu eta oneratzeko gain, prebentzioaren eta koordinazioaren alde egiten da, eta beren jarduera edo zereginengatik egoera ahulean dauden biztanleekiko lehenetsunezko eta hurbiltasunezko jarrera daukaten edo orokorrean biztanleekin sentsibilizazio jarduerak egiten dituzten profesionalen trebakuntzaren eta gaikuntzaren alde ere bai.

Nazioarteko tresnek jarduteko hiru ildo nagusi ezartzen dituzte sexu-esplotazioaren eta emakume-salerosketaren aurka egiteko: prebentzioa, biktimen babesa eta koordinazioa/lankidetzak. Hiru printzipio horiek inplementazioko eta garapeneko hainbat maila onartzen dute. Horregatik, sexu-esplotazioaren eta emakume-salerosketaren aurkako Nafarroako Foroak 2015. urtera arte gauzatu nahi duen jarduketa-planak biktimen babesa eta oneratzeko aurreikusten eta lehenesten du, premia handiena duen alderdia dela uste duelako. Hain zuzen ere, 2012rako lan-programan jardunbide hori gidatuko duen jarduketa-protokoloaren diseinua ezarri da. Salerosketa-sareek esplotatzen dituzten emakumeek bizileku segurua behar dute premia handiz; eta gerora, egonaldi luzerako bizi-

lekua, osasun, psikologia eta gizarte aldetik laguntza osoa bermatua edukitzeko eta oneratzeko. Gainera, lege-aholkua behar dute, beren kabuz erabaki ahal izan dezaten eragiten dizkieten delituen aurkako salaketa jarri nahi duten eta ikerketan lagundu nahi duten. Prozesu osoan, behar bezalako laguntza espezializatua edukiko dute.

Halaber, biktimaren babesak eta segurtasunak hala eskatzen duenean, Nafarroako Foru Komunitatetik kanpoko balia bideetara bideratzeko eta jarraipena egiteko protokoloek ekinen zaie.

Une honetan, eta Foroko lantaldearen bitartez, Nafarroan koordinatzeko eta salerosketaren biktimak diren emakumeekin jarduteko protokoloaren idazketa-lanak aurrera jarraitzen du. Protokolo horrek kontuan hartu beharko du iragan apirilaren 5ean onetsitako Europar Batasuneko Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/36/EB Zuzentaraua, gizakien salerosketari aurrea hartu eta aurre egiteari eta biktimak babesteari buruzkoa. Izan ere, zuzentarau horren aurreikuspenak datozen bi urtetan Espainiako antolamendu juridikoan sartu beharko dira.

Gaur egun, foro horren eremuan, talde teknikoa emakume-salerosketako kasuetan eskumena duten administrazio publikoen jarduketa-protokoloa idazten amaitzen ari da. Entitate pribatuak ere lotuko dituen protokolo horren helburuak hauek dira: gizakien salerosketako biktimak hauteman, identifikatu, lagundu eta babesteko jarraibideak ezartzea, prozesu horietan parte hartzen duten instituzioen arteko koordinazioa bideratzea eta arloan erantzukizunak dauzkaten administrazioen

arteko harremanetarako mekanismoak nahiz sexu-esplotazioko egoeran dauden emakumeentzako laguntzan esperientzia egiaztatuta daukaten erakunde eta entitateekiko komunikazio eta lankidetzaren prozesuak definitzea, Europako Kontseiluak egiaztatu duen bezala esplotazio hori giza eskubi-deen urratze larria eta gizarte-arazo larria baita.

2012ko abenduan protokolo hori prest egongo dela eta onesteko aurkeztu ahal izanen dela aurreikusi da.

Nafarroako Foroak epe ertainean eta luzean markatu dituen helburuetako bat, 2012-2015 bitarteko ekintza-planean aurreikusita dauden gainerako jarduketak egitea da. Jarduketa horiei esker hobetu ahal izanen dira informazioaren bilketa, biktimak identifikatu eta hautemateko adierazle komunak diseinatu, informazio-materialen argitalpena –hainbat hizkuntzatan–, prebentzioa, autolaguntzarako taldeen diseinua eta salerosketaren biktimarekin esku hartzen duten profesionalen eta boluntarioen trebakuntza, generoaren ikuspegitik. Proiektua asmo handikoa da, eta lortu nahi duen azken helburua, Nafarroan emakumeen sexu-esplotazioari erantzun osoa eta koordinatua emanen dion ekintza politikoa diseinatzea da, bere garaian Nafarroako Berdintasunerako Institutua zenaren zuzendari-kudeatzaileak txostenaren aurkezpenean esan zuen bezala.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Iñigo Alli Martínez

Galdera, Nafarroako D ereduko ikastetxeetan, Lehen Hezkuntzako Ingurunearen Ezaguera arloan eta Bigarren Hezkuntzako Gizarte Zientzien arloan erabiltzen diren testuliburuaren zerrendari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Amaya Zarranz Errea andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako D ereduko ikastetxeetan, Lehen Hezkuntzako Ingurunearen Ezaguera arloan eta Bigarren Hezkuntzako Gizarte Zientzien arloan erabiltzen diren testuliburuaren zerrendari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2012ko urriaren 15eko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko Amaya Zarranz andreak Nafarroako D ereduko ikastetxeetan, Lehen Hezkuntzako Ingurunearen Ezaguera arloan eta Bigarren Hezkuntzako Gizarte Zientzien arloan erabiltzen diren testuliburuaren zerrendari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez, hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen Zuzendaritza Nagusiak egindako txostenaren arabera:

a) Idatziz erantzuteko egindako galdera horretan "Nafarroako D ereduko ikastetxeetan, Lehen Hezkuntzako Ingurunearen Ezaguera arloan eta Bigarren Hezkuntzako Gizarte Zientzien arloan

erabiltzen diren testuliburuaren zerrenda" eskatzen da, eta erantzuna Parlamentura igortzeko epea azaroaren 6an amaituko da.

b) Hala ere, ikastetxeen erregelamendu organikoek eta horien garapenek ezartzen dutenez, ikastetxeek urriaren 31ra arteko epea dute dagokion ikasturteko urteko programazio orokorra liskapen Zerbitzuari igortzeko. Hain zuzen ere, programazio horren barruan dagoen "administrazio memorian", beste hainbat informazioren artean, ikastetxeak erabiltzen dituen liburuaren zerrenda dago (24 eta 25/1997 foru dekretuak eta horiek garatzen dituzten foru aginduak).

c) Beste alde batetik, administrazio memoria hori EDUCA kudeaketa programaren bitartez betetzen da, eta 2012-13 ikasturte honetan lehenengo aldiz eginen da orokorrean ikastetxe itundu guztietarako. Arrazoi horregatik, datuak jasotzean atzerapenak gertatzen ari dira.

d) Gainera, datuak (liburuaren zerrendak) eskura daudenean, jakina denez, denbora behar da prozesatzeko, Parlamentuari igortzeko prest dauden arte.

e) Azaldu diren arrazoiengatik, eskatu den informazioa azaroaren amaiera aldean igorri ahal izanen dela uste da.

Iruñean, 2012ko azaroaren 5ean

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

Galdera, “Itzaleko bidesaria” finantzaketa-ereduak direla-eta Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritaterako eta kudeaketa nahiz efizientzia hobekuntzako neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Itzaleko bidesaria” finantzaketa-ereduak direla-eta Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritaterako eta kudeaketa nahiz efizientzia hobekuntzako neurriei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2012ko urriaren 19ko 83. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak “Itzaleko bidesaria” finantzaketa-ereduak direla-eta Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritaterako eta kudeaketa nahiz efizientzia hobekuntzako neurriei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES- 140/12), hau erantzun dio Sustapeneko kontseilariak:

Une honetan, eta Sustapen Departamentuari dagokionez, bi administrazio-emakida daude itzaleko bidesariaren modalitatearen bidez kontratatuta, eta hauek dira:

– “Iruña-Logroño autobia (A-12) egin, zaindu eta ustiatzeko obra publikoen kontzesio kontratua”, 2002ko irailaren 24an Autovía del Camino S.A. sozietate kontzesiodunarekin sinatu zena.

– “Pirinioetako Autobia (A-21) egin, zaindu eta ustiatzeko obra publikoen kontzesio kontratua”, 2009ko uztailaren 31n Autovía del Pirineo S.A. sozietate kontzesiodunarekin sinatu zena.

Nafarroako Gobernuak aipatu diren kontratuen esparruan egin beharreko jarduketan helburuetako bat, nahitaez, kontratu horietan biltzen diren betebeharrak bete ditzaten beharrezkoak diren kontrol tekniko eta ekonomiko guztiak egiten dira.

Gobernuak bere kudeaketan gauzatzen dituen austeritate-neurri guztiei dagokienez, halaber, azertu egingen da kontratuaren arabera sozietate kontzesiodunei eskatzen ahal zaizkien baina behar-beharrezkoak ez diren zaintzeko jarduketa jakin batzuk atzeratzeko, birprogramatzeko edo murrizteko aukerarik dagoen, errepideen foru sareko gainerako errepideetarako hartutako neurriekin bat etorrira, sortzen den aurrezkoa Administrazioari helduko zaiolakoan.

Egoera horretan daude argiak, zoladuren sendotzea, mozketak, inausketak, garbiketak, etab. Hori guztia, kontzesioaren behar bezalako finantza-orekari utsita. Izan ere, hala izan ezean, baliteke kontzesiodunak erreklamazioa aurkeztea, eta horrek ondorio ekonomikoak ekarri ahal dizkio Administrazioari.

A-12 autobiarene kasuan, Gordailu Kontu Berezikoko saldoen eta mugimenduen kontrola egiten da, kontu horrek uneoro Administrazioak bere alde edo bere kontra duen superabitaren edo defizitaren zenbatekoa ager dezan, horrela kontzesioa aurretiaz deuseztatzeko aukera kontrolatu ahal izanen baita.

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Sustapeneko kontseilaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa osatzen duten sozietateen administrazio kontseiluei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa osatzen duten sozietateen administrazio kontseiluei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2012ko urriaren 15eko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villaba andreak Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa osatzen duten sozietateen administrazio kontseiluetan kontraprestazio ekonomikoa jasotzen duten kideen zerrendari eta kide bakoitzak 2011ko eta 2012ko ekitaldietan jasotako zenbatekoari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES-137), hau erantzun du Nafarroako Gobernuako Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak:

Talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galderari erantzuteko, Jesús Pajares Azpírozek, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.ren (CPEN) izenean eta haren ordezkari gisa (ondorio horietarako helbidea: Sarasate pasealekua, 38 – 2. eskuinta, Iruñea, Nafarroa), zuzendari nagusia den aldetik, errespetuz,

Hau adierazten du:

1. “Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa (CPEN) osatzen duten sozietateen administrazio kontseiluetako bakoitzean, CPENeko administrazio kontseilua barne, kontseiluetara joateagatik kontraprestazio ekonomikoa jasotzen duten kideen zerrenda” berregituratzeko prozesuaren ondoren sortutako sozietate berriei dagokienez

a) 2011ko ekitaldian administrazio kontseiluen bileretara nahiz bilera horiek prestatzeko mota guztietako bileretara joateagatik dieten eta gastuetarako kalte-ordainen kontzeptuan diru kopuruak jaso dituzten CPENeko eta korporazioan integratutako sozietateetako administrazio kontseiluetako kideak honako hauek dira. Haietariko bakoitzari ordaindu zaion diru kopurua (zenbateko gordina) zehazten da, administrazio kontseiluko kide izendatu zituzten dataren arabera:

Juan Franco Pueyo jn.	345,20 €
Reyes Calderón Cuadrado and.	6.000 €
Judith Hualde Irigaray and.	6.000 €
M. Ángeles Egúsquiza Balmaseda and.	6.000 €
Koldo Amezketa Díaz jn.	6.000 €
Javier Antoñana Gastesi jn.	6.000 €
Idoia Nieves Nuin and.	345,20 €

Navarra de Suelo y Vivienda, S.A. NASUVINSA

(* Viviendas de Navarra, S.A. sozietate irenslari dagozkion dietak)

Juan Ignacio Goñi Saldise jn.	3.454,80€
Yolanda Barcina Angulo and.	3.093,37 €
Martín Ignacio Garcia Lopez jn.	3.454,80 €
Jose Antonio Marcen Zunzarren jn.	3.454,80 €
Marta Echavarren Zozaya and.	3.454,80 €
María Isabel García Malo and.	16.917,81 €
Luis Antonio Ayesa Ajona jn.	3.454,80 €
Jesus Ascunce Elizaga jn.	3.454,80 €
Javier Etayo Lezaun jn.	3.454,80 €

Agencia Navarra del Transporte y la Logística, S.A. – ANL

(* Ciudad del Transporte de Pamplona, S.A. sozietate irenslari dagozkion dietak)

Jesús M. Posadas Martínez jn.	4.400,00 €
Laura Alba Cuadrado and.	20.036,00 €
Susana Labiano Bastero and.	4.400,00 €
Esteban Faci Paricio jn.	4.400,00 €
Rosa M. Sevigne Amatriain and.	4.400,00 €
Beatriz Sanz García and.	4.400,00 €
Nafarroako Merkataritza Ganbera	4.400,00 €
Audenas	4.400,00 €

Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias, S.A. – INTIA.

(* Riegos del Canal de Navarra, S.A. sozietate irenslako administrazio kontseiluko kidearen kargua ordaindu gabekoa zen. Sozietatearen izena aldatu zen, eta gaur egungo izena INTIA da. Halaber, bat-egitea gauzatu zenetik, hau da, 2011ko azken hiruhilekotik, administrazio kontseiluko kidearen kargua ordaindu egiten da)

Tomás Mendivil Lizarraga jn.	811,11 €
Miguel Pérez García jn.	366,67 €
Miguel Ángel Martínez Pérez jn.	811,11 €
Rubén Palacios Goñi jn.	811,11 €
Ángel Eraul Dronda jn.	433,33 €
Miguel Pascual Cuesta González jn.	433,33 €

- (* - Gorritz, berregituratzeko prozesua baino lehenagoko sozietate irenseko administrazio kontseiluko kideak.
 - Berdez, berregituratzeko prozesuaren ondoriozko sozietateko administrazio kontseiluko kideak
 - Urdinez, berregituratzeko prozesuaren aurretik eta ondoren karguan zeuden administrazio kontseiluko kideak)

Andrés Eciolaza Carballo jn.	528,99 €
Enrique Eraso Centelles jn.	3.916,11 €
Fermín Olabe Velasco jn.	2.727,34 €
Pedro Ugalde Zaratiegui jn.	2.727,34 €
Julio Ortiz de Landázuri Inchaurre jn..	2.727,34 €
Francisco José Negro Roldán jn.	2.727,34 €
Jesús Iragui Aguinaga jn.	2.727,34 €
Félix Armendáriz Martínez jn.	2.727,34 €
Miguel Roncalés Pérez jn.	2.727,34 €
Iñaki Morcillo Irastorza jn.	799,92 €
Juan José Grau Lasheras jn.	799,92 €
Pedro Zuazo Onagoitia jn.	799,92 €

Navarra de Infraestructuras Locales, S.A. – NILSA.

Amelia Salanueva Murguialday and.	17.021,67 €
Agustín Belloso Lorente jn.	4.112,96 €
Gregorio Galilea Arazuri jn.	4.605,00 €
Jesús Antonio Esparza Iriarte jn.	4.605,00 €
Jesús María García Antón jn.	4.112,96 €
José María Irisarri Ollacarizqueta jn.	4.605,00 €
José Luis López Rodríguez jn.	4.605,00 €
Pedro Pegenaute Garde jn.	3.948,95 €
José Javier Remírez de Ganuza Casado jn.	4.112,96 €
Luis María Sada Enériz jn.	4.112,96 €
Javier Sanz Carramiñana jn.	4.112,96 €
José Ignacio Sola Jiménez jn.	4.605,00 €
Alfonso Ucar Zaratiegui jn.	4.112,96 €
Begoña Urrutia Juanicotena and.	4.605,00 €
Angel Pino Lozano jn.	492,04 €
Iñaki Arrizabalaga Rodríguez jn.	492,04 €
Mariano Herrero Ibañez jn.	492,04 €
Francisco Pérez Arregui jn.	492,04 €

- (* - Gorritz, berregituratzeko prozesua baino lehenagoko sozietate irensleko administrazio kontseiluko kideak.
 - Berdez, berregituratzeko prozesuaren ondoriozko sozietateko administrazio kontseiluko kideak.
 - Urdinez, berregituratzeko prozesuaren aurretik eta ondoren karguan zeuden administrazio kontseiluko kideak.)

Juan Ramón Corpas Mauleón jn.	15.147,95 €
María del Rosario Martínez González and.	4.000,00 €
Javier Felix Carmona Salinas jn.	3.189,04 €
Asunción Salaverri Sanz and.	3.189,04 €
Alfredo Huarte Carcar jn.	4.000,00 €
Carlos Erce Eguaras jn.	3.189,04 €
Joaquín Ortigosa Ocon jn.	3.189,04 €
Ana María Setién Rodríguez and.	3.189,04 €
Pedro Luis Lozano Úriz jn.	3.189,04 €
Fátima Baigorri Romero and.	3.189,04 €
Miren Maite Domínguez Muguiro and.	3.189,04 €
José Joaquín Oroz Pascual jn.	427,40 €
Helena Berruezo Valencia and.	427,40 €

Navarra de Deporte y Ocio, S.L. – NDO.

(* Circuito Los Arcos, S.L. sozietate irensleko administrazio kontseiluko kidearen kargua ordaindu gabekoa zen. Sozietatearen izena aldatu zen, eta gaur egungo izena NDO da. Halaber, bat-egitea gauzatu zenetik, hau da, 2011ko azken hiruhilekotik, administrazio kontseiluko kidearen kargua ordaindu egiten da)

Minerva Ullate Fabo and.	438,36 €
José Ramón Santesteban Uriz jn.	438,36 €
José Antonio Marañón Oricain jn.	438,36 €
María Pilar García García and.	438,36 €
Ramón Alzórriz Goñi jn.	438,36 €

Centro Navarro de Autoaprendizaje de Idiomas, S.A. – CNAI

Ignacio Iriarte Aristu jn.	821,92 €
Carmen Mier Gómez and.	821,92 €
Javier Felix Carmona Salinas jn.	821,92 €
Pedro M. Gravalos Falces jn.	427,40 €
Santos Cerdán León jn.	427,40 €
Teresa Aranaz Jiménez and.	3.082,74 €
Pedro José González Felipe jn.	3.082,74 €
Elena Vallés Iriso and.	3.082,74 €
Antonio Iriarte Moncayola jn.	3.082,74 €
Javier Martínez Eslava jn.	3.082,74 €
Francisco Javier Esparza Sánchez jn.	3.082,74 €
Juan Franco Pueyo jn.	3.082,74 €
Lorenza Albéniz Ascorbe and.	3.082,74 €

- (* - Gorritz, berregituratzeko prozesua baino lehenagoko sozietate irensleko administrazio kontseiluko kideak.
 - Berdez, berregituratzeko prozesuaren ondoriozko sozietateko administrazio kontseiluko kideak.
 - Urdinez, berregituratzeko prozesuaren aurretik eta ondoren karguan zeuden administrazio kontseiluko kideak.)

Roberto Rubio Torrano jn.	2.721,32 €
Gregorio Eguílaz Gogorza jn.	2.721,32 €
José Gabriel Iriarte Rived jn.	3.135,90 €
David Sainz Jiménez jn.	2.721,32 €
Fernando Santafé Aranda jn.	2.721,32 €
Dolores Eguren Apesteguía and.	2.721,32 €
Amaya Larequi Gorritz and.	2.721,32 €
José Contreras López jn.	3.135,90 €
Ildefonso Sebastián Labayen jn.	2.721,32 €
Miguel Pérez García jn.	2.721,32 €
Miguel Ángel Martínez Pérez jn.	2.721,32 €
Joseba Asiain Albisu jn.	797,26 €
José Luis Azcárate Sanz jn.	797,26 €
Marta Huarte Rodríguez and.	797,26 €
Diego Asiain Valdelomar jn.	414,58 €

Centro Europeo de Empresas e Innovación, S.L. – CEIN.

Miren Maite Domínguez Muguero and.	810,96 €
Juan Carlos Artazcoz Sanz jn.	810,96 €
Rafael Mugerza Eraso jn.	810,96 €
Gorka Jiménez Sánchez jn.	427,40 €
Javier Remirez Apesteguía jn.	427,40 €

- (* - Gorritz, berregituratzeko prozesua baino lehenagoko sozietate irensleko administrazio kontseiluko kideak.
 - Berdez, berregituratzeko prozesuaren ondoriozko sozietateko administrazio kontseiluko kideak.
 - Urdinez, berregituratzeko prozesuaren aurretik eta ondoren karguan zeuden administrazio kontseiluko kideak.)

Álvaro Miranda Simavilla jn.	3.097,21
Marta Echavarren Zozaya and.	787,61
Iosu Ardaiz Loyola jn.	3.884,82 €
Manuel Arana Soret jn.	787,61 €
Fermín Muñoz Muñoz jn.	3.884,82 €
Cristina López Mañero and.	787,61
José Javier Zabaleta Zuñiga jn.	787,61
Julio Ortiz de Landázuri Inchaurren jn.	787,61
José Luis Arasti Pérez jn.	425,73
Javier Remirez Apesteguía jn.	787,61
Miguel Angel Iriso Lerga jn.	3.097,21
Juan Santafé Rodrigo jn.	3.097,21
Miguel Angel Jiménez de Cisneros Fonfría jn.	3.097,21
Cristina Presmanes Zaratain and.	3.097,21
Ignacio Guembe Cervera jn.	3.097,21
Rubén Palacios Goñi jn.	3.097,21
Edurne Elío Aldunate and.	3.097,21
José Luis Menéndez Rodríguez jn.	3.097,21

b) Oraingo, "Sociedad de Desarrollo de Navarra, S.L.", "Navarra de Suelo y Vivienda, S.A" eta "Agencia Navarra del Transporte y la Logística, S.A." sozietateetako administrazio kontseiluko kideek, ez dute diru kopururik jaso dieten kontzeptuan, 2011ko ekitaldiari dagokionez.

c) "Ciudad Agroalimentaria de Tudela, S.L." sozietateko administrazio kontseiluko kideek ez dute dietarik jaso, 2011ko ekitaldiari dagokionez, kontseilari edo administratzaile karguak ekitaldi horretan ez zuelako ordainsaririk, sozietatearen estatutuen arabera.

2.- "2011ko eta 2012ko ekitaldietan kontseilu bakoitzera joategatik kide bakoitzak jasotako zenbatekoa, aurreko atalen ildotik" dioen galderari dagokionez, lehen aipatu diren sozietateetako batzar nagusiek (bazkide bakarraren erabakia – Ikus 4. puntua), oraingo, ez dute ezer ere erabaki 2012ko ekitaldiari dagozkion dietei buruz, eta beraz, kontzeptu horretan ez da ordainketarik egin. 2011ko ekitaldiari dagokionez, ikus 1. puntua.

3.- "Kontseilura ez joateak ordainsari hori deuseztatzen duen ala ez, aipatutako administrazio

kontseilu horietako bakoitzean" dioen galderari dagokionez, esan behar da administrazio kontseiluen bileretara ez joateak ez duela esan nahi sozietateetako batzar nagusiek dieten kontzeptuan erabakitako kopuruak ordainduko ez direnik.

4.- "2012an kontseilu horietara joategatik Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak ordainketa gisa aurreikusten duen zenbatekoa [...]" dioen galderari dagokionez, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.k, agiri honen datan, ez du erabakirik hartu sozietateetan administratzaile kargua betetzeagatik 2012ko ekitaldian dieten kontzeptuan ordaindu beharreko kopuruei buruz. Hala ere, uste da erabili beharreko kopurua 2011ko ekitaldiaren antzekoa izanen dela, hau da, 4.000 euro gordin inguru administrazio kontseiluko kide bakoitzarentzat.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, “Reyno Arena” pabiloiaren kudeaketa eta finantzaketa direla-eta Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritaterako eta kudeaketaren hobekuntzarako neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Reyno Arena” pabiloiaren kudeaketa eta finantzaketa direla-eta Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritaterako eta kudeaketaren hobekuntzarako neurriei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2012ko urriaren 19ko 83. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Reyno Arena pabiloiaren kudeaketa eta finantzaketa direla-eta Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritaterako eta kudeaketaren hobekuntzarako neurriei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES-00142), hau erantzundu Gizarte Politiketako kontseilariak:

Navarra Arena pabiloiaren finantzaketari dagokionez, 2013ko ekitaldiko Aurrekontuetan 10.000.000 euro jarri dira obra zibila eta harmailen instalazioa direla-eta indarrean dauden kontratuetarako, bai eta laguntza teknikoen portzentajeetarako (obraren zuzendaritza, laguntza, segurtasuna eta osasuna...) eta sor litezkeen kontserbazio eta zaintza gastuetarako ere. Lizitatu gabe dauden gainerako kontratuak (aforoa, markagailua, tresneria etab.) geroko utzi dira, gastu horri ekin ahal izateko koiuntura ekonomiko egokiago baten zain.

Azpimarratzekoa da Reyno de Navarra Arena pabiloiak erabilera asko izan ditzakeela. Atzerantz bil daitezkeen harmailen sistemari eta plataforma ezkutagarriari esker, tokiak jardueraren arabera egokitu ahal izanen dira eta, zalantzarik gabe, kudeaketa bizkortu eta hobetu eginen da.

Ikuskizun mota eta aforo desberdinetarako instalazio desberdinak eta antolaketa- nahiz erabilera-sistema desberdinak diseinatu dira; oso langile gutxi behar dituzte, laster muntatzen eta desmuntatzen dira eta energia gutxi kontsumitzen dute. Aurreikusita dago hori guztia erakargarria izanen dela enpresa sustatzaileentzat, zuzenean murriztuko baitizkie ikuskizunen kostua eta muntaketarako denbora.

Halaber, energia aurrezteko azken teknologiak erabili dira pabiloiaren proiektuan, besteak beste, eguneroko beharrak aseko dituen instalazio geotermikoa, biomasa-galdarak, errendimendu handiko hotz-makinak, euri-uren berrerabilera, argi naturalaren ekarpen handia eta eraikinaren kudeaketa immotikorako sistema.

Orain arte egindako eraikuntza kontratuetan, bestalde, eraikina eta bertako instalazioak mantentzeko paketeak hitzartu eta jaso dira, eta 8 urteko epean horiei dagokien zenbatekoa aurretiko da pabiloiaren kudeaketan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko azaroaren 9an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

Galdera, Moderna Planari lotutako jarduketa guztien kudeaketa eta finantzaketa direla-eta Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritate-rako eta kudeaketa nahiz efizientzia hobetzeko neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Moderna Planari lotutako jarduketa guztien kudeaketa eta finantzaketa direla-eta Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritate-rako eta kudeaketa nahiz efizientzia hobetzeko neurriei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2012ko urriaren 19ko 83. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Moderna Planari lotutako jarduketa guztien kudeaketa eta finantzaketa direla-eta Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritate-rako eta kudeaketa hobetzeko neurriei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-141), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak:

Ekonomia Zerbitzuak kudeatzen du Moderna Fundazioari urtero bere ekintza plana garatzeko ematen zaion diru-laguntza izenduna, Moderna Plana kudeatu eta finantzatzeko ereduaren ezarritako dagoen bezala. 2013. urterako, Nafarroako Aurrekontu Orokorren proiektuaren arabera, gehienez ere 500.000 euroko aurrekontu-hornidura izanen du Moderna Fundazioak bere ekintza plana finantzatzeko.

Moderna Fundazioa entitate pribatua da eta haren gobernu organoek (Patronatua eta Batzorde Iraunkorra) onetsi behar dituzte austeritate-rako eta kudeaketa hobetzeko egokitzat jotzen dituzten neurriak, Fundazioaren jardura Nafarroako Aurrekontu Orokorren bitartez jasoko duen finantzaketa publikoari egokitze aldera.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko azaroaren 9an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Nafarroarako Inbertsio Publikoen Plana taxutu eta bukatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramirez Erro jaunak Nafarroarako Inbertsio Publikoen Plana taxutu eta bukatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2012ko urriaren 19ko 83. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Nafarroarako Inbertsio Publikoen Plana taxutu eta bukatzeari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-144), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak:

Joan zen 2011ko abenduaren 14an Nafarroako Gobernuak inbertsio publikoen urte anitzeko plana egiteko lanen hasiera onetsi zuen, eta plana egiteko irizpideak eta prozedura ezarri ziren.

Prozedura horri jarraituz, Nafarroako departamentuek eta sektore publikoko enpresek egin beharreko inbertsioen proposamenak jaso ziren. Informazio hori aztertu egin zen, eta alde biko bilera egin zituzten Ekonomia eta Ogasun Departamentuko arduradunek eta inbertsio-proposamenen egileek, proposamen horiek Nafarroako Gobernuak onetsitako irizpideekin bat zetozen baloratzeko.

Aurreikusitako zen, halaber, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak bideratu eta koordinatuko zituzten planaren finantzaketa beharrak, defizitaren eta aurrekontu-egonkortasunaren arloko helburuari egokitzeko eta epe ertaineko programazio ekonomikoarekin uztartzeko.

Aurreko erantzunean aipatutako lanak hasi eta gero, 2012ko otsailaren 1eko bilkuran, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen Nafarroako Gobernuaren 2012-2015 bitarteko Programazio Ekonomikoa (GPE) egitea. Programazio hori ezinbestekoa da epe ertaineko jardunari begira lehentasunak ezarri

ahal izateko. Programazio horretan jaso beharko dira, batetik, proposatu diren helburuak lortzeko egin behar diren jarduketak, eta bestetik, hautatutako jarduketan balorazio ekonomikoa, epeka.

Urte anitzeko inbertsio plana egiteko lanak Gobernuaren Programazio Ekonomikoaren aurretik hasi baziren ere, jarduketa horiek, halabeharrez, GPEak ezartzen duen urte anitzeko estrategiaren ildoan sartu behar dira eta haren helburuak lortzen lagundu behar dute. Programazio Ekonomikoa lantze prozesuan dago, eta onestekotan esparru horretan onetsiko da urte anitzeko inbertsioen plana.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko azaroaren 9an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Nafarroako Gobernuak Foruzaingoa txapelaren erabilera arrunta ordeztzeko hartutako erabakiaren arrazoiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Víctor Rubio Martínez jaunak Nafarroako Gobernuak Foruzaingoa txapelaren erabilera arrunta ordeztzeko hartutako erabakiaren arrazoiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2012ko urriaren 19ko 83. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínez jaunak galdetu du, idatziz erantzuteko egindako galderan, Nafarroako Gobernuak zer dela-eta erabaki duen Foruzaingoa txapelaren erabilera arrunta ordezteko, 30.000 eurotik gorako kostuarekin eta Foruzaingoko bertako ordezkariak sindikalaren irizpidearen aurka. Hona Lehendakariak, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

1. Lehenengo eta behin, ez da Foruzaingoa txapelaren erabilera arrunta ordeztu, galderan diozun bezala.

Erabilera arrunta unitate batzuetan txapelarena izanen da eta beste batzuetan txanoarena. Beraz, bi jantziak erabiltzen dira erabilera arruntean.

2. Arrazoiei dagokienez, hau jakinarazi behar dizut:

Gastua baimentzeko ebazpenak 2012ko martxoaren 2ko data du. Justizia eta Barneko lehengo zuzendari nagusiak sinatu zuen, Lehendakariak, Justizia eta Barne Departamentu honetako beste kudeatzaile talde bateko kidea bera. Kontratua maiatzaren 22an esleitu zen.

Kontseilari hau 2012ko ekainaren 23an jabetu zen karguaz eta nekez azaldu ahal dizkizu zein arrazoik bultzatu zuten arduradun hura aipatutako aldaketak egitera.

3. Erabakia "ordezkaritza sindikalaren irizpidearen aurka" hartu zela diozu. Kontseilari honek urriaren 6ko prentsan jasotakoa daki, alegia, Foruzaingoko Langileen Batzordeak gaiari buruzko komunikatua eman zuela.

Beraz, txanoen esleipena eta erosketa ez ziren egin sindikatuen irizpidearen aurka, inolako iritziadierazpenik gabe baizik. Txanoak unitate gehiagotan erabiltzen hasi ondoren azaldu dute iritzia sindikatuek, esleipen prozesua abiatu zenetik zazpi hilabetera, eta hedabideentzako jakinarazpen baten bitartez egin dute.

Alde batera utzita beti dela ona edozein aldaketa edo erabakiren inguruko atxikimendu eta adostasun ahalik eta handiena bilatzea, gogora ekarri behar da legezko eskumena duten zuzendaritza eta kudeaketa organoei dagozkiela horrelako ardura teknikoak, eta organo horiengana jo zite-

keela gaiari buruzko ekarpenak egiteko, aurkakoak barne.

Hori dela eta, gogoan izan behar da Foruzain-goko beste unitate batzuek urteak daramatzatela txanoa erabiltzen txapelaren ordeztu eta lehendik bazegoela esperientzia, beraz, Foruzaingoan txanoaren erabilera hedatzeko saio hau baloratzeko balio zezakeena.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilaria: Javier Morrás Iturmendi

Galdera, burtsa-balioetan sartutako baliabide publikoak direla-eta Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritate eta hobekuntza neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, burtsa-balioetan sartutako baliabide publikoak direla-eta Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritate eta hobekuntza neurriei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2012ko urriaren 19ko 83. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, burtsa-balioetan sartutako baliabide publikoen kudeaketari eta horien gaineko erabakiak hartzeari

dagokienez Nafarroako Gobernuak zer austeritate eta hobekuntza neurri hartu nahi dituen jakiteko, idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-139), hau erantzun du Nafarroako Gobernu-ko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Nafarroako Gobernuak ez du etorkizunean burtsa-balioetan inbertsiorik egiteko asmorik.

Eginda dauden inbertsioak direla-eta, jakinarazi behar dizut etengabeko jarraipena egiten dela partaidetzek merkatuan duten bilakaerari buruz.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko azaroaren 9an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Espainiako Itzuliko etapak direla-eta Unipublic-i ordaintzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Amaya Zarranz Errea andreak Espainiako Itzuliko etapak direla-eta Unipublic-i ordaintzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2012ko urriaren 29ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Populares de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amaya Zarranz andreak Espainiako Itzuliko etapak direla-eta Unipublic-i ordaintzeari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES-00146), hau erantzun du Gizarte Politiketako kontseilariak:

Unipublic, S.A.ren kontratuaren zenbatekoa (990.000,00 euro, BEZa barne) hiru zatitan likidatu da, banku-transferentzia eginez esleipen-hartzailearen kontura, Nafarroako Kirol eta Gazteriarren Institutuari zuzendutako faktura jasotakoan, era honetara:

- Lehenengo ordainketa: bostehun mila euro (500.000,00 €), BEZa barne, Nafarroako 2012ko Aurrekontu Orokorren kargura. Joan zen irailaren 30ean ordaindu ziren.

- Bigarren ordainketa: 196.000,00 euro, BEZa barne, 2013an ordaindu beharrekoak, Unipublic, S.A.k Nafarroaren publizitate instituzionalerako euskarriak egin dituela justifikatutakoan. Publizitate hori datorren urteko Itzulian ere agertuko da.

- Hirugarren ordainketa: 294.000,00 euro, BEZa barne, 2013ko Espainiako Itzuliko azken etapa amaitutakoan ordaindu beharrekoak.

Bigarren eta hirugarren ordainketak, esan bezala, Nafarroako 2013ko Aurrekontu Orokorren berariaz jarriko den kontusailaren kargura egiten dira, betiere kontratuan ezarritako baldintzak betetzen badira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko azaroaren 14an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

Galdera, Merkataritza Ganberarekiko harremanean Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritate eta hobekuntza neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Merkataritza Ganberarekiko harremanean Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritate eta hobekuntza neurriei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2012ko urriaren 19ko 83. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Merkataritza Ganberarekiko harremanean Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritaterako eta kudeaketa-hobekuntzarako neurriei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00138), hau erantzun du Nafarroako Gobernuako Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Nafarroako Gobernuak lankidetzarako esparruhitzarmena sinatu du Merkataritza Ganberarekin, ICEXekin eta CENekin, Nafarroako enpresak

nazioarteratzeko laguntza bateratu eta koordinatua antolatu nahian.

Gobernuak lehentasunezko helburutzat jotzen du nazioarteratzea, bai ohiko merkatuetan bai merkatu berrietan, Nafarroak eta bertako enpresek emaitza hobekak lor ditzaten merkataritza-garapeneraren arloan.

Xede horretarako, Politika Ekonomikoaren eta Nazioartekoaren Zuzendaritza Nagusiak sustaturik, esparru-hitzarmena sinatu da 2012ko ekainaren 11n. Lau urte iraunen du eta sinatzaileok agin-

du dugu programa eta ekintza bateratuak diseinatu eta garatuko ditugula. Hala, bikoiztasunak saihestu eta osagarritasunak bilatu nahi dira, erakunde bakoitzaren baliabideen kudeaketa eraginkorragoa izan dadin.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakitekoa zergatik ez den ordezkatu erretiroa hartu duen Leitzako Nekazaritza Ganberako langile bat.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Víctor Rubio Martínez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa zergatik ez den ordezkatu erretiroa hartu duen Leitzako Nekazaritza Ganberako langile bat. Galdera argitaratu zen 2012ko urriaren 29ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínez jaunak ondoren azaltzen diren gaiei buruz idatziz erantzuteko galdera egin du (8-12/PES-00148):

1. Zergatik ez da ordeztu erretiroa hartu duen pertsona, zerbitzua ordura arteko baldintza berean ematen jarraitu ahal izateko?

2. Zer ekimen-mota jarriko du abian Nafarroako Gobernuak, Nafarroako eskualde horretako lehen sektorearentzat bulego horretan ematen zen zerbitzua bermatzen jarraitu ahal izateko?

Galdera horri dagokionez, hau erantzun du Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariak:

Leitzako eskualdeko bulegoan administrari laguntzaile ari zen langileak erretiroa hartu zuen 2012ko apirilaren 6an.

Leitzako bulegoko lanak berrantolatu egin ziren, kontuan izanik Nafarroako Gobernuaren 2012ko otsailaren 15eko Erabakia, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan 2012. urtean langileria gastuak murrizteko jarraibideak ematen dituen, eta Nafarroako Gobernuak gastu publikoa murrizte aldera 2012ko ekainaren 20an hartu zituen erabakiak, besteak beste lanpostu hutsak aparteko eta ezinbesteko kasuetan soilik betetzeko. Hala, Lekunberriko eta Larraintzarko langile titularrek egiten dituzte Leitzako bulegoko lanak, asteazketan, lanaldi osoan.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua Nafarroako eskualdeko bulegoen sarea aztertzen ari da Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuarekin elkarlanean, sarea hobetzeko, departamentu honek dituen baliabideak ahalik ongien erabilita. Nafarroako Nekazari eta Abeltzaintzako Eskualdeko Laguntza Plana 1998an onetsi zen eta honezkero beharrezkoa da bulego sareak gaur egun dituen premien azterketa sakona egitea.

Ildo horretan bulego guztietako lan-zamen azterketa egin da, eta, emaitzen arabera, ez da bidezkoa Leitzako eskualdeko bulegoan lanaldi osoan jardutea, bulego horretako lan-zama txikia delako.

Gainera, hurbileko beste bulego batzuek, bereziki Lekunberrikoak, zerbitzu ematen diote eskualdeari. Lekunberriko bulegoko arreta ordutegia ez da aldatu, Leitzako zerbitzua egin ahal izateko

bulego hori itxita dagoen egunetan (hamabostean behin, asteazkenez) izan ezik.

Hala ere, bulego sarearen azterketa amaitutakoan berrantolaketa orokorra eginen da eta egungo behar eta eskarrietara egokituko dira arreta ordutegiak, bulegoen eta langileen banaketa eta bulegoiei esleitutako baliabideak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2012ko azaroaren 19an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Castejongo ziklo konbinatuko zentral termikoetako tximinietan kutsagarriak era jarraituan neurtzeko sistemak ezartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin Víctor Rubio Martínez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Castejongo ziklo konbinatuko zentral termikoetako tximinietan kutsagarriak era jarraituan neurtzeko sistemak ezartzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2012ko urriaren 29ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínez jaunak Castejongo herrian dauden ziklo konbinatuko zentral termikoen ingurumen-inpaktuaren adierazpenari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12-/PES-00151), hau erantzun du Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariak:

Instalaturik al daude zentraletako tximinietan sufre dioxidoa, nitrogeno oxidoa eta ozonoa eten-gabe neurtzeko sistemak?

Zentralek badituzte sufre dioxidoa, partikula solidoak, nitrogeno oxidoak eta karbono monoxidoa etengabe neurtzeko sistemak.

Industria prozesu batek ere ez du ozonorik airetzen, ozonoa bigarren mailako kutsatzailea delako, lehen mailako kutsatzaileek erreakzionatzen dutenean sortzen dena. Beraz, zentralek ez dute ozonoa neurtzeko sistemarik.

Ba al dago sistema informatikorik, kutsatzaile horiek etengabe neurtzeko sistemak lortutako datuak jaso ahala emanen dizkiona kutsadura atmosferikoa zaintzeko Nafarroako sareari?

Bai.

Tximinietan neurtze-sistema horiek baldin badaude, zergatik ez dira datuak jakitera ematen Nafarroako Gobernuaren web orrian?

Nafarroako Gobernuaren http://www.navarra.es/home_es/Temas/Medio+Ambiente/Calidad+del+aire/ web orrian aditzera ematen dira denbora errealean, orduro berrituta, airearen kalitateari buruzko datuak, araudi aplikagarria betez.

Tximinietako neurtze-sistemen datuak ez dira aditzera ematen, ez dagoelako hala agintzen duen araudirik.

Aurkezten ari al dira ingurumen-inpaktuaren adierazpenek exijitzen dituzten ingurumen-zaintzari buruzko urteko txostenak? Hala baldin bada, zer datatan aurkeztu dira?

Bi enpresa titularrek ingurumen-zaintzarako planeko txostenak aurkezten dituzte urtero. Hona hemen aurkezpen datak:

Urtea	Fuerzas Eléctricas de Navarra, S.A.	Eléctrica de la Ribera del Ebro, S.A.
2004	05/07/04	05/05/12
2005	06/04/12	06/05/10
2006	07/07/11	07/05/28
2007	08/09/02	08/11/03
2008	09/05/12	09/06/16
2009	10/09/27	10/05/14
2010	11/09/23	11/06/03
2011		12/05/23

Oraindik ez da jaso Fuerzas Eléctricas de Navarra, S.A.ren 2011ko txostenik, eta horren erreklamazioa egin zaio enpresari.

Nolanahi ere, urteko txostena hilero jasotzen diren txostenen bilduma baino ez da. Hileroko txosten horiek nahikoak dira isuriak ebaluatzeko irizpideak noraino betetzen diren baloratzeko. Azpimarratu behar da, halaber, Fuerzas Eléctricas de Navarra, S.A.ren zentralak 2011n zehar 700 ordu baino ez dituela egin lanean. Beraz, urte hori ez da haren funtzionamenduaren adierazgarri.

Txosten horiek baldin badaude, ingurumen-inpaktuaren adierazpenetan ezarritakoa betetzen al dute, emisioak ebaluatzeko irizpideei dagokionez?

Bai, urteko txosten guztietan eta aldiaren behin bidaltzen den dokumentazioan justifikatu egiten da nola betetzen diren ingurumen-inpaktuaren adierazpenetan ezarritako irizpideak, emisioen ebaluazioari dagokionez.

Desbideratzeren bat izan al da? Hala bada, zer neurri zuzentzaile hartu da?

Ez da inolako desbideratzerik gertatu funtzionatzen ari diren hiru multzoetako jarduerak hasi zirenetik.

Isuriei buruzko zein ondorio aurkeztu dira?

Isuriak direla-eta kasu guztietan aurkeztu den ondorioa da bete egiten direla ingurumen-inpaktuaren adierazpenetan eta ingurumen-baimen integratuetan isuriei buruz ezarritako baldintzak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko azaroaren 19an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Los Arcosko zirkuituaren kudeaketa eta finantzaketa direla-eta Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritaterako eta kudeaketaren hobekuntzarako neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Los Arcosko zirkuituaren kudeaketa eta finantzaketa direla-eta Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritaterako eta kudeaketaren hobekuntzarako neurriei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2012ko urriaren 19ko 83. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Los Arcosko zirkuituaren kudeaketa eta finantzaketa direla-eta Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritaterako eta kudeaketaren hobekuntzarako neurriei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES 143), hau erantzun du Gizarte Politiketako kontseilariak:

Navarra Deporte y Ocio, S.L. sozietateak bi azpiegitura biltzen ditu, orain aspaldi ez dela hasi direnak jardunean (horietako bat, Nafarroako Zirkuitua, 2010eko ekainean), beren lantaldeekin. Beraz, jarduera berria duen sozietate berria da, eta, horregatik, bere baliabideak sendotzeko eta hobetzeko irizpideak aplikatzen ari zaizkio betebete jarduten hasi baino lehenagotik; are, eratu baino lehenagotik.

2010etik austeritate neurriak jarri izan dira enpresaren gastuak ahalik gehien murrizteko. Azpimarratzekoak dira honako hauek:

A. Langileriaren egiturari dagokionez:

a) Lehenago kanpoan egiten ziren lanak (kontratuak idaztea, lehiaketa publikoetako baldintzen agiriak egitea, mantentze lanak eta lorezaintza...) sozietatearen langileek edo CPENeko departamentu juridikokoek egiten dituzte.

b) Aztertzen ari da hirugarrenei azpikontrataturiko zerbitzu batzuk ordeztzea, justifikatzen baldin bada horrek emaitzen kontuan eragina izan duela eta CPEN taldeko giza baliabideen arloko politikarako komeni dela.

c) Garrantzitsua da langile bakoitzaren produktibitatea gero eta handiagoa izatea. Horrela, enpresak orain duen defizita murriztuz joanen da harik eta ustiapen-emaitza positiboa lortu arte (amortizazioak eta finantza-gastuak kontuan hartu gabe).

B. Gaur egun sorgailuek ematen diote energia elektrikoa zirkuituari, eta erregai gastu handiak eragiten dituzte. Urte amaierarako zirkuitua sare elektrikoarekin lotuko duen goi tentsioko linea jartzeko lehiaketa plazaratu da, gastu horiek aurrezteko eta egindako inbertsioa epe laburrean errentagarri bihurtzeko xedearekin.

C. Navarra Deporte y Ocio S.L. sozietatea Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko kidea da. Aurrezpen handiak lortzen ari da, taldeko enpresa guztientzako zerbitzuak lehiaketa bidez kontratatuz: gas hornidura, bulegoko materialen erosketa, mezularitza zerbitzuak, aseguruak, ibilgailuentzako erregaia etab.

Navarra Deporte y Ocio lanean ari da Nafarroako Zirkuituaren kudeaketa hobetzeko neurrietan. Hauek dira neurri nagusiak:

· Tresna iraunkorra eta kalitate handikoa izatea Nafarroako Foru Komunitatearen bultzapenerako eta garapen sozioekonomikorako.

• Ustiapen-emaitza positiboa lortzea (amortizazioak eta finantza-gastuak kontuan hartu gabe).

• Estatuko eta atzerriko bezeroen kopurua handitzea.

• Instalazioen marketin eta komunikazio estrategia egokia lantzea.

• Merkataritza jardueran aurrera egitea (jada sortuta dauden produktu eta zerbitzuak sendotu eta sustatzea, babesle eta laguntzaileak bilatzea, beste enpresa publiko batzuekiko sinergiak baliatzea...).

• Hainbat ezkutaritza eta motor-enpresarekin lan egiten ari da, beren egoitzak zirkuituan edo inguruetan koka ditzaten.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko azaroaren 19an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

Galdera, Tuterako Laneko Arbitraje eta Bateragarritasun Bulegoa itxi izanaren arrazoiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Víctor Rubio Martínez jaunak Tuterako Laneko Arbitraje eta Bateragarritasun Bulegoa itxi izanaren arrazoiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2012ko urriaren 29ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínez jaunak Tuterako bateragarritasun bulegoa itxi izanaren arrazoiei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12-/PES-00149), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak: Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguaren kontseilariak:

Lan Prozedurari buruzko lege zaharrak nahiz Lan Jurisdikzioa arautzen duen lege berriak, biek ezartzen dute lan auzietan adiskidetze saioa egin behar dela, lan arloko jurisdikzioan demanda jarri baino lehen.

Nafarroan Arriskuen Prebentziorako eta Lanaren Zuzendaritza Nagusiak edo Nafarroako Lan Epaitegiak egin dezakete zerbitzu hori. Erabiltzaileek organo horietako edozeinengana jo dezakete, eta norberaren aukera horrek ez du legezko edo erregelamenduzko beste mugarik.

Hainbat urtez bi erakundeok ordezkariak izan dituzte Iruñean eta Tuteran eta zerbitzua eskuragarri jarri dute beren egituren konfigurazioak bide eman duen neurrian.

Bi bulegoetan, Iruñean eta Tuteran, adiskidetze lanak egiten zituen pertsonak erretiroa hartutakotan, Arriskuen Prebentziorako eta Lanaren Zuzendaritza Nagusiak egiturak berrantolatzea erabaki du eta Erriberako hirian zerbitzua emateari utzi dio, arrazoi hauengatik:

1 Herritarrei zerbitzua emateko bokazioak eraginda, Administrazio Publikoak etenik gabe hobetu behar du prozeduretan parte hartzen

duen enpresa eta langileei eskaintzen dien zerbitzua. Ildo horretan kontuan hartu behar da Tuteran, batez beste, astean sei adiskidetze egintza tramitatzen zirela. Iruñean eta inguruko eskualdean daude zerbitzuaren balizko erabiltzaile gehienak. Lehengo sistemarekin, aste barruko lau egunetan bakarrik egiten ziren adiskidetze egintzak; astearteetan Tuterara joan beharra zegoen bertako eskaria asetzera. Hartu den erabakiari esker, orain asteko bost lanegunetan eskain daiteke adiskidetze zerbitzua Arriskuen Prebentziorako eta Lanaren Zuzendaritza Nagusiaren egoitzan, eta horrela zerbitzua hobeki antola daiteke.

2 Gainera, zerbitzuak indarrean jarraituko du Tuteran, eta hobetu egingen dira baliabideak eta egiturak, Tuteran Nafarroako Lan Epaitegiak ematen baitu zerbitzua eta inguruko enpresa eta erabiltzaileek lan arloko adiskidetze egintzak egin ahal izanzen baitituzte Iruñera joan beharrik izan gabe.

3 Tuterako bulegoa mantentzeak berekin dakar pertsona bat etengabe bertan egotea jende-ari arreta ematen. Adiskidetze gutxi egiten zirenez eta legelariak Iruñetik Tuterara joan behar zuenez, egun batean metatu behar izaten ziren aste osoko egintzak (astean sei inguru). Aste barruko beste lau egunetan, ordea, funtzionario horren lan-zama hutsaren hurrengo zen, eta larriki mugatuta zegoen langile publiko horren garapen profesionala. Hartu den erabakiaren ondoren langile hori Tuterako beste lanpostu batera aldatu da Nafarroako Foru Administrazioaren esparruan. Haren denbora eta lanbide-garapena optimizatu egin dira eginkizun berrietan.

Laburbilduz, baliabideen berrantolatetarako bide ematen du herritarrei zerbitzuak modu eraginkorragoan emateko, egungo egoera sozioekonomikoari dagokion bezala, lanaren ikuspuntutik enpresa eta langileen beharrak asetzeari utzi gabe.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko azaroaren 19an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguaren kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakitekoa zer eragilerekin koordinatu den Ekintzailtza Plan berria.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, jakitekoa zer eragilerekin koordinatu den Ekintzailtza Plan berria, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2012ko urriaren 29ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Ekintzailtza Planari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-150), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilariak:

1. galdera: Zer eragilerekin koordinatu da?

Sarrera gisa esan behar da 4 arlo hartu direla abiapuntutzat I. Ekintzailtza Plana sortzeko. Honako hauek dira:

ARLO ESTRATEGIKOAK			
Talentua eta gizartea	Ideien sustapena, ekintzailtza-jarduera sortu eta finkatzea	Sareak eta aliantzak	Finantziarioa eta administrazioa

Arlo horien barruan 7 lan-mahai eratu dira, hauexek:

- Talentuaren eta gizartearen mahaia
- Sorkuntzaren mahaia
- Finkapenaren mahaia
- Sustapenaren mahaia
- Sare eta aliantzen mahaia

- Finantziarioaren mahaia
- Administrazioaren mahaia

Zortzigarren mahai bat ere eratu da, koordinazio-mahaia, eta berak gidatu du plana sortzeko prozesua.

Azkenik, eta galderari erantzunez, guztira 47 eragilek parte hartu dute mahaietan eta planaren sorrera haiekin koordinatu da. Hona hemen eragileen zerrenda:

AIN - Nafarroako Industriaren Elkartea	Decostudio	NASF
AJE - Enpresaburu Gazteen Elkartea	Industriaren, Enpresaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusia	Navarcable
ANEL - Nafarroako Lan Enpresen Elkartea	Gobernu Irekiaren eta Teknologia Berrien Zuzendaritza Nagusia -Nafarroako Gobernua	OHR Consultoría
ARPA Abogados Consultores	Hezkuntza Departamentua - Nafarroako Gobernua	Playing for learning
Banco Santander	NUKE - Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa	Sedena
Euskadiko Kutxa	Europako Foroa	Nafarroako Enplegu Zerbitzua
Nafarroako Rural Kutxa	Moderna fundazioa	SODENA
Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera	Nafarroako Zerga Ogasuna	SONAGAR
NAK	Helphone	Tafco Metawireless
Cederna Garalur	NAPI - Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua	UNED Iruñea
CEIN	Incita	UNED Tutera
CEMITEC	Iniciativas Innovadoras	Nafarroako Unibertsitatea
CEN - Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioa	Inspirit	Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Clave Mayor	Job Accomodation	Youmedia
Coeli Novae	La Caixa	Zabala Innovation Consulting
Cortaire	LUK	

2. galdera: Zer koordinazio-prozedura baliatu da?

Plana sortzeko urrats hauek egin dira:

- 2012ko lehenengo hiruhilekoa: koordinazio-mahaiak, zenbait bileratan, planaren egitura zehaztu zuen, bai eta plana egiteko behar ziren lan-mahaiak ere.
- 2012ko bigarren hiruhilekoa: lan-mahaiak 2-3 aldiz bildu ziren eta ekintzaitzaren sustapenerako ekintza egokiak zehaztu zituzten bilera haietan.
- 2012ko hirugarren eta laugarren hiruhilekoak: mahaietan egindako lanaren ondorioak taxutu ondoren, koordinazio-mahaiak ezarpenerako egokienak hautatu zituen, 27 guztira. Ekintza horien bidez garatu da plana.

Koordinazio-mahaiak ordezkariak izan duten entitateak hauek dira:

- CEIN
- Industriaren, Enpresaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusia
- Hezkuntza Departamentua
- Moderna fundazioa
- Nafarroako Enplegu Zerbitzua

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko azaroaren 19an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Nafarroan egiten den giza organoen kudeaketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak Nafarroan egiten den giza organoen kudeaketari buruz egindako galdearen erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2012ko azaroaren 8ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak giza organoen kudeaketari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES-00154), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak:

1.- Nork zuzendu eta koordinatzen du transplanteen arloa Nafarroan?

Nafarroan transplanteekin zerikusia duten jardueren koordinazioaren arduraduna transplanteen koordinatzaile autonomikoa da, hots, 2012ko martxoaren 1etik, Javier Aldave Villanueva jauna. Osasun Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen abuztuaren 24ko 134/2011 Foru Dekretuaren 12.2 artikulua dioenez, Osasuneko kontseilariak izendatu behar du koordinatzaile hori, Osasunbidea - Nafarroako Osasun Zerbitzuan edo Osasun Zuzendaritza Nagusiko Osasun Jardueren Ikuskapenerako eta Aseguramendurako Atalean diharduten langileen artean. Beraz, koordinatzaileak langile publikoa izan behar du.

Gainera, transplanteen bi koordinatzaile daude Nafarroako Ospitalegunean eta beste bat Nafarroako Unibertsitate Kliniketan.

2.- Nola koordinatzen da organoen ateratzea, garraioa eta transplantea?

Organo eta ehunak eman, kontserbatu, garraiatu eta inplantatzeko prozesua konplexua da eta hainbat pertsona eta erakundek esku hartzen dute urrats horietan.

1.- Prozesua abian jartzen da pazienteren bat organo-emaile bihurtzeko deitzen denean ospitale bateko ZIUan. Pazientearen heriotza entzefalikoa gertatzen denean, biziari eusteko neurrien bitartez organoak bizirik kontserbatzen dira ateratzearen zain.

2.- Familiari baimena eskatzen zaio.

3.- Organoak atera behar dituen lantaldeari deitzen zaio: 2 kirurgialari erazi beharreko organo mota bakoitzeko; anestesista bat, 3 erizain, 2 laguntzaile eta zeladore bat.

4.- Transplanterako paziente egokia daukan ospitalea bilatzen da.

5.- Transplantea egiten duen ospitalerainoko garraioa.

6.- Organoaren edo organoen ezarpena.

7.- Tanatopraxia (gorpuaren berregite anatomikoa).

Ehunen dohaintza desberdin samarra da:

ZIUan (organoen dohaintzan bezala) nahiz ZIUtik kanpo aurki daiteke emailea, ehunen kontserbazioak ez baitu hainbesteko presarik; beraz, ospitaletik kanpo egin daiteke, funtsean istripuren bat gertatzen denean. Kasu honetan, betiere epailearen zaintzapean, auzitegi-medikuak (Auzitegiko Institutu Anatomikokoa) edota Nafarroako Larrialdietako Agentziak ematen dute abisua: emaile bat izan litekeela jakinarazten diote ehunen koordinatzaileari. Koordinatzailea familiarekin harremanetan jartzen da baimen informatua eskuratzeko, eta gorpua dohaintzarako egokia ote den jakiteko balorazio medikoa egiten du, behar diren serologia probak eginez. Koordinatzaileak dei egiten dio organoak erazi behar dituen taldeari (oftalmologoak korneak ateratzeko eta traumatologoak hezurretarako). Azkenik, koordinatzaileak Auzitegiko Institutu Anatomikora deitzen du, tanatopraxia egin dezaten.

Organo-emaileen eta -transplanteen koordinazioa honela egiten da:

Balitzko emaile bat aurkituz gero, ospitale-koordinatzailearen eginbeharrak dira:

- Emailearen familiaren baimen informatua eskuratzeko.

- Emaileari buruzko informazioa erregistratzea ONTren Emaileen Erregistroan, ONTk kudeatzen duen SIUL izeneko informazio-sistema erabiliz, sistema horrek inplante guztien trazabilitatea bermatzen baitu.

- ONTrekin koordinaturik ospitale hartzaileak bilatzea.

- Organoa garraiatu behar duenarekin harremanetan jartzea: foruzain eta/edo suhiltzaileekin, transplantea Nafarroan egitekoa bada, eta garraio pribatuarekin, beste erkidego batean egitekoa bada.

- Auzitegiko Institutu Anatomikora deitzea, tanatopraxia egin dezaten.

Ehunen dohaintza izanez gero, koordinatzaileak, gainera, gorpua dohaintzarako egokia den jakiteko balorazio medikoa egiten du, behar diren proba serologikoak eginez.

3.- Nola koordinatzen dira organoen ateratzea, garraioa eta transplantea?

Organoak transplantatzeko itxarote-zerrendekin zerikusia duten jarduera guztietan helburu nagusia da gaixo bakoitzarentzako organorik onena bilatzea, haren beharretara ongien egokitzen dena.

Transplantea egokitzeak jotzeko irizpide eta protokoloak homologaturik daude, zientzia-sozietateen eta Transplanteen Erakunde Nazionalaren (ONT) artean adosturik, eta publikoak dira. Pazienteak, itxarote-zerrendan sartzeko, protokolo horietan zehazten diren baldintza kliniko guztiak bete behar ditu.

Itxarote-zerrendaren kudeaketan, lehenbiziko balorazio medikoa da abiapuntua, arazoa detektatu duen zerbitzu klinikoak (nefrologia, kardiologia etab.) egindako balorazioa, hain zuzen. Gero, transplanteak egiten dituen zentroko zerbitzu klinikoak bigarren balorazioa egiten du eta hor berretsi egin behar da transplantea egokia dela. Gainera, kirurgia aurreko balorazioa egin behar dute anes-tesia eta kirurgia zerbitzuek, pazientearen egokitasunari buruz. Baldintza horiek betez gero, pazientea transplanteetarako itxarote-zerrendan sar dadila proposatzen duen txosten medikoa egiten da.

Organo bat inplantatzerakoan, itxarote-zerrendatik pazienteak aukeratzeko hiru aldagai kliniko hartzen dira kontuan, hurrenkera honetan:

1) Histobateragarritasuna; hau da, inplantatu behar den organoarekin bateragarriena den pazientea bilatu behar da.

2) Morfometria, emailearen eta hartzailearen adina, pisua eta garaiera antzekoak izan daitezen.

3) Antzinatasuna itxarote-zerrendan.

Irizpide horiei jarraituz bi hautagai aukeratzeko dira. Lehenengoa zentroan sartzen da transplantea jasotzeko, eta bigarrenari erreserban dagoela jakinarazten zaio.

Transplanteetarako itxarote-zerrendaren arau horiek gorpuetatik ateratako organoetarako baino ez dira. Emaille bizien organoak, berriz (gibelak eta giltzurrunak) paziente jakinentzat dira, normalean emaileen ahaideentzat, eta kontuan hartzen dira histobateragarritasuna eta morfometria, baina ez itxarote-zerrendako antzinatasuna.

4.- Nola bermatzen du Administrazio Publikoak organoen arloari dagozkion arlo guztien jarraipena eta kontrola? Zein mekanismo daude?

Nafarroa 1998. urtetik dago atxikita ONTK dohaintza prozesuaren kalitatea bermatzeko sortutako programari. Hona hemen programaren helburu nagusiak:

1. Organoen dohaintzarako ahalmen teori-koa zehaztea, ospitale motaren arabera.

2. Dohaintza prozesuetan gertatzen diren ihesak detektatzea. Balizko organo-emalleak zergatik galtzen diren aztertzea. Dohaintza prozesuari eragiten dioten ospitale-faktoreak deskribatzea.

Programa horrek badu autoebaluazio fase bat; ospitaleko transplante-koordinatzaileak berak egiten du, eta datuak ONTra bidaltzen ditu. ONTK, gainera, kanpo ebaluazioaren fasea egiten du ospitale bakoitzean: ospitaletik kanpoko 2 ebaluatzailek burutzen dute, tokian tokiko transplante-koordinatzaileen laguntzaz.

Kanpo ebaluazioaren helburuak hauexek dira:

- Ospitaleetako azpiegitura eta jardueri buruz ospitaleetako transplante-koordinatzaileek urtero bidaltzen dituzten datu orokorrak erkatzea.

- Organoak emateko eta erauzteko prozesuko kalitate-sistemaren eraginkortasuna ebaluatzea baimendutako ospitaleetan.

- Arazoak eta kalitate-sistemaren etengabeko hobekuntzarako egin beharreko aldaketak zehaztea.

Kanpo ebaluazioa Nafarroako Ospitalegunean egin zen azken aldiz, 2010. urtean, eta ebaluatzaileek emaitza onak atera zituzten.

Organo-inplanteak egiten dituzten osasun zentroak Osasun Departamentuak baimendutako zentroak dira. Organo-inplanteak egiten dituzten osasun zentroetako emaitza klinikoan jarraipena ere egiten du ONTK.

5.- Odol, ehun eta organo emaile eta hartzaileak biltzen dituen erregistro bateraturik ba al dago, transfunditu edo transplantatu ondoko aurkako erreakzioak biltzen dituen?

Odol eta ehun emaileen erregistroak Odol eta Ehun Bankuan daude, eta bera arduratzen da dohaintzen trazabilitateaz eta aurkako erreakzioen jarraipenaz.

Organo emaile eta hartzaileen erregistroa gaur egun ONTn zentralizaturik dago. Esan bezala, badago informazio-sistema bat ONTn zentralizaturia, SIUL izenekoa, eta egiten diren inplante guztien trazabilitatea bermatzeko behar den informazioa biltzen du.

Organoak erauzten eta inplantatzen diren ospitalean, ospitaleko koordinatzaileek informazio hori SIULen sartzen dute zuzenean; beraz, ONTk kudeatzen duen informazio-sistema horretan dago

emailearen eta hartzailearen gaineko garrantzizko informazio kliniko guztia.

Organoen trazabilitatea SIUL aplikazioan jasorik dago.

Halaber, ONTk kudeatzen du arlo honetan hautematen diren kontrako ondorioen sistema zentralizaturia, alegia, ospitale guztiek ONTri jakinarazi behar dizkiote gertatzen diren arazoak eta aurkako erreakzioak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko azaroaren 26an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, 2008-2012 urteetan Osasunbideak izandako langile kopuruari eta haien egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak 2008-2012 urteetan Osasunbideak izandako langile kopuruari eta haien egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2012ko azaroaren 8ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin zuen, izan nahi zuelako "2008tik 2012ko urrira arte Osasunbideko langileen kopuruaren eta egoeraren berri, modu grafiko edo konparatiboan, honako atalak bilduz: langile kopurua, kontratu kopurua eta behin-behinekotasuna" (8-12/PES-00153). Hori horrela, hona Nafarroako Gobernuaren Osasun kontseilariaren erantzuna:

Ondoko datuak Osasunbidearen oroitidazkietatik daude hartuak; hain zuzen ere, 2008, 2009, 2010 eta 2011 urteetako oroitidazkietatik. Memoria

horiek Nafarroako Gobernuaren webgunean daude kontsultagai (www.navarra.es).

Datu guztiak aterata daude Nafarroako Gobernuak giza baliabideen kudeaketarako dituen programa korporatiboetatik. 2008 eta 2009ko datuak WINSIGP programatik atera dira, eta 2010, 2011 eta 2012koak SAP programatik. 2012ko datuetarako, irailari dagokion informazioa erabili da, horiek baitira informazio hau prestatzerakoan eskura zeuden azken datuak.

Aipatu behar da, gainera, 2012ko abuztuaren 7an, 63/2012 Foru Dekretua onetsi zela, uztailaren 18koa, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua erakunde autonomoa sortu eta bere estatutuak onesten dituen. Egun horretatik aurrera, Osasun Publikoaren Institutua Osasunbidetik kanpo gelditu zen.

Plantillaren datuak hilabeteetara ekarriz normalizatu dira (langile finkoenak jarduneko hilabete kopurura ekarri dira, eta aldi baterako langileenak, berriz, kontratatutako hilabete kopurura); horrela, urte osoan lanaldi osoan lan egiten duten pertsonak kalkulatu dira.

Osasunbidearen plantillak, osotara hartuta, honako bilakaera izan du erreferentzia-epe bakoitzean:

Osasunbideko plantilla, osotara	2008	2009	2010	2011	2012ko iraila	2008-2012 aldea (%)
	9.538	9.826	9.950	10.160	9.844	3,21

Osasunbideak, berriz, kontratu kopuru hau egin du erreferentzia-epe bakoitzean:

Urtea	Kontratu kopurua
2008	44.436
2009	56.633
2010	48.768
2011	46.105
2012ko urria	32.891

Azkenik, ondoko taulan erakusten da zer bilakera izan duen aztertutako epean langile finko eta aldi baterakoaren proportzioak, urte bakoitzeko plantilla osoa erreferentzia hartuta.

Osasunbideko plantilla	2008	2009	2010	2011	2012ko iraila
Osasunbideko langile finkoak (%)	56	56	56	60	63
Osasunbidean aldi baterako kontratua duten langileak (%)	44	44	44	40	37

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2012ko azaroaren 26an

Osasun kontseilaria: Marta Vera Janín

